



Gure proiektuaren ideia auto elektrikoak kargatzeko sistema berritzailea erabiltzea da. Haririk gabeko plaken bidez, autoa konektatu eta denbora gutxian kargatzea nahi dugu, bezeroak beste zeozer egiten duten bitartean, ia konturatu barik.

Idea aurrera eramango dugu instituzio publiko eta pribatuetan, batez ere toki estrategikoetan, auto elektrikoek jabeek maiz igarotzen diren tokietan (komertzial zentroetako parkingak, adibidez).

Gainera, Google play-n eta app store-n(dohainik) eskuragarri egongo den aplikazio baten bidez ordainketa egingo da. Zerbitzu kalitate-maila desberdinak eskainiko ditugu diru aportazioaren arabera.

Enpresaren izena "ELECTRUS" izango da, izen laburra eta teknologiarekin zerikusia duena.

Logoaren koloreak urdina (konfiantza, askatasuna, lasaitasuna,..) eta berdea (natura, bizi itxaropena, fidagarritasuna,..), erdiko tximista kargaren sinboloa da.

Gure slogana "wireless life" da, haririk gabeko bizitza esan nahi duena, gure karga mota bezala.

